

TOLOSAK SEXU-HARREMAN ASKEAK ETA BAIMENDUAK DEFENDATZEN DITU.
INORK ZURE SEXU-ASKATASUNA ERAGOZTEN BADU, SALATU DEZAKEZU. **INFORMA ZAITEZ!**

- 1.** Salatua ala ez salatua, **eskubidea duzu laguntza eta arreta psikologikoa, sanitarioa eta legala jasotzeko**; hau da, jasan duzun erasoak zuk erabaki bezala bideratzeko.
- 2.** Eskubide horiek berberak izango dituzu zure **administrazio-egoera irregularra** izanda ere.
- 3.** **Garrantzitsua da osasun-etxe batera ahalik eta azkarren joatea**, erasoan eragindako kalteari aurre egiteko laguntza jaso eta frogak erregistratzeko. Sexu-erasoaren ondorengo lehen orduak funtsezkoak dira ikerketa ongi bideratzea bermatzeko. Hori dela eta, gomendatzen da ez garbitzea, dutxarik ez hartzea eta arropaz ez aldatzea; erasoak ahotik jasoz gero, jakirik ez edaririk ez hartu, osasun-etxera joan baino lehen.
- 4.** **Asuncion Klinika da larrialdietarako erreferentziazko osasun zerbitzua** Tolosan. Baliteke azterketa forentsea egiteko, Donostiako Ospitalera bideratzea.
- 5.** **Ospitalean egonda erasoak salatzea erabakitzen baduzu, ospitaleak hartuko du ardura** lesio-partea dagokion guardiako epaitegira igortzeko eta hala poliziari nola mediku forentseari abisua emateko.
- 6.** Ospitalean egonda ez baduzu erasoak salatzea nahi, ospitalea **beharturik dago** agintari judizialei edozein sexu-erasoren **berri emateko**, zure baimenarekin edo baimenik gabe, baina horrek ez du prozedura judizialik zertan abiarazi.
- 7.** Halaber, **aukera dago ertzain-etxe edo guardiako epaitegi hurbilenean salaketa zuzenean aurkezteko**. Bietan, eskubidea dago abokatuen laguntza jasotzeko. Laguntza hori eskatzeko aholkatzen da, **abokatu batek zaindu dezan prozesuaren funtzionamendu egokia**.
- 8.** **Soilik salaketa aurkeztuta abiatuko da erasotzailearen kontrako zigor-prozedura**. Prozedura penala gogorra izan daiteke erasoak pairatu duenarentzat, eta ez du ziurtatzen erasotzailearentzat "bidezko" kondenarik, baina erasotzaileari aurre egiteko eta zigorgabetasuna saihesteko modu bakarra da.
- 9.** Arreta feministan eta sexu-erasoetan esperientzia duten zerbitzu juridiko eta psikologiko espezializatuak ere eskura dituzu Tolosan. Horretarako, **ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxera, deitu dezakezu: 943 00 89 67**.
- 10.** Salaketa jartzeko denbora tarte bat duzu, eta berehala egin nahi ez baduzu ere, ospitalera joan zaitezke prebentzio-tratamenduak lortzera eta probak lortzera, aurrerago egin nahi baduzu.



Informazio edo laguntza gehiago behar duzu?

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen etxera (943 008 967 | 747 496 469 – Emakumeon Plaza 1, Tolosa) jo dezakezu.

Udaleko Gizarte Zerbitzuetara (943 654 466 | Extensión 911, Plaza Zaharra 6b)

HARIBERRIA - 24 orduko aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta-zerbitzua.

Sexu-erasoen biktimei arreta integrala emateko foru-zerbitzua. Zentroak zerbitzu integrala eskaintzen du, 16 urtetik gorako emakumeen eskubide eta aukerei buruzko informazioa eta orientazioa ematen duena, bai eta arreta psikologiko eta soziala ere, suspertze-prozesua errazteko.

 **900 840 188 (24 ordu eta 365 egun)**

SFUS

Gipuzkoan indarkeria matxista jasaten duten emakumeen urgentziatzko beharrei erantzuten die Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuen lan ordutegitik kanpo baliabide honetara joko da. Lehen balorazioa egin ostean, emakumea dagokion baliabide eta zerbitzuetara bideratzen dute.

 **943 224 411 (07:00–22:00) / 112 (22:00–07:00)**

- **Ordutegia: 24 ordu eta 365 egun (Erasoa eman eta hurrengo 48 ordutara ere arreta ematen dute)**

SATEVI

Eraso bat jasan duten **emakumeak artatu eta eskura dituzten baliabide zein zerbitzuez informatzeko 24 orduko telefono-zerbitzua** da SATEVI. Zerbitzuak 51 hizkuntzatan erantzuten du, eta prestatuta dago entzuteko edota hitz egiteko desgaitasuna dutenak artatzeko. Zerbitzua berehalakoa da, **anonimoa, konfidentziala eta doakoa**, eta ez du arrastorik uzten telefono fakturan.

 **900 840 111 (24 ordu eta 365 egun)**

TOLOSA DEFIENDE LAS RELACIONES SEXUALES LIBRES Y CONSENTIDAS.
SI ALGUIEN IMPIDE TU LIBERTAD SEXUAL, PUEDES DENUNCIARLO. **¡INFÓRMATE!**

- 1.** Con independencia de que denuncies o no, **tienes derecho a recibir asistencia y atención psicológica, sanitaria y legal**, es decir, a que la agresión que has sufrido se reconduzca como tú decides.
- 2.** **Tendrás los mismos derechos** aun cuando tu **situación administrativa sea irregular**.
- 3.** **Es importante acudir a un centro sanitario lo antes posible** para recibir asistencia y registrar pruebas para hacer frente al daño causado en la agresión. Las primeras horas después de la agresión sexual son fundamentales para garantizar una buena orientación de los resultados de la investigación. Por ello, se recomienda no lavarse, no ducharse ni cambiarse de ropa; en el caso de recibir la agresión por vía oral, no tomar alimentos ni bebidas antes de acudir al centro sanitario.
- 4.** **La Clínica de la Asunción es el servicio sanitario de referencia para urgencias** en Tolosa. Es posible que para la revisión forense se derive al Hospital Donostia.
- 5.** **Si una vez en el hospital decides denunciar la agresión, el mismo hospital se encargará de remitir el parte** de lesiones al juzgado de guardia correspondiente y de dar aviso tanto a la policía como al médico forense.
- 6.** Si en el hospital no quieres denunciar la agresión, el hospital **está obligado a poner en conocimiento** de las autoridades judiciales cualquier tipo de agresión sexual, con o sin tu consentimiento, sin necesidad de iniciar un procedimiento judicial.
- 7.** También **se puede presentar una denuncia directamente ante la Comisaría o Juzgado de Guardia más próximo**. En ambos, se tiene derecho a recibir asistencia letrada. **Se aconseja solicitar esta ayuda para que un abogado o una abogada vigile el correcto funcionamiento del proceso**.
- 8.** **El procedimiento penal contra el agresor se iniciará únicamente mediante denuncia**. El procedimiento penal puede ser duro para quien ha sufrido la agresión y no asegura una condena "justa" para el agresor, pero es la única manera de combatirlo y evitar la impunidad.
- 9.** También tienes a tu disposición en Tolosa servicios jurídicos y psicológicos especializados con experiencia en atención feminista y agresiones sexuales. Para ello, puedes llamar a **Andragora, la Casa de las Mujeres de Tolosaldea. 943 008 967**.
- 10.** Tienes un tiempo para denunciar y aunque no quieras hacerlo de inmediato, puedes acudir al hospital para conseguir tratamientos preventivos y obtener pruebas en el caso de querer hacerlo más adelante.



¿Necesitas más información o ayuda?

ANDRAGORA, Casa de las Mujeres de Tolosaldea (943 008 967 | 747 496 469 – Emakumeon Plaza 1, Tolosa).

Servicios Sociales del Ayuntamiento (943 654 466 | Extensión 911, Plaza Zaharra 6b)

HARIBERRIA – Servicio de atención presencial y telefónica 24 horas.

Servicio foral de atención integral a víctimas de agresiones sexuales. El centro ofrece un servicio integral que brinda información y orientación sobre los derechos y oportunidades de las mujeres mayores de 16 años, así como atención psicológica y social para facilitar su proceso de recuperación.

 **900 840 188 (24 horas, 365 días)**

SFUS

El **Servicio Foral de Urgencias Sociales** atiende las necesidades urgentes de las mujeres que sufren violencia machista en Gipuzkoa. Fuera del horario laboral de los Servicios Sociales, se dirigirá a este recurso. Tras una primera valoración, se deriva a la mujer a los recursos y servicios correspondientes.

 **943 224 411 (07:00–22:00) / 112 (22:00–07:00)**

- **Horario 24 Horas, 365 días. También atienden 48 horas después de la agresión.**

SATEVI

SATEVI es un **servicio telefónico 24 horas para atender a mujeres que han sufrido una agresión e informarles de los recursos y servicios disponibles**. El servicio corresponde en 51 idiomas y está preparado para atender a personas con discapacidad auditiva y verbal. El servicio es inmediato, **anónimo, confidencial y gratuito**, y no deja rastro en la factura telefónica.

 **900 840 111 (24 horas, 365 días)**